



## **INNOBIDEAK-KUDEABIDE PROGRAMAREN 2024KO DEIALDIKO DIRULAGUNTZAK**

### **1. Oinarri arautzaileak.**

Deialdi honetako dirulaguntzak Diputatuen Kontseiluaren 2020ko ekainaren 2ko erabakiaren bidez onetsi ziren (2020ko ekainaren 9ko GAO, 107. zk.) eta organo horrek berak 2021eko martxoaren 30ean (2021eko apirilaren 19ko GAO, 70. zk.) eta 2022ko apirilaren 12an (2022ko maiatzaren 2ko GAO, 81. zk.) aldaui ziren

### **2. Finantziazioa.**

2.1. Guztira deialdi honetan emango diren dirulaguntzen zenbatekoa berrehun eta hogeita bost mila eurokoa (225.000,00 €) da, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2024ko Aurrekontu Orokorren ondorengo kontu sailen kargura:

1.0510.100.470.00.21.2024: 135.000,00 €.

5.0510.100.470.00.21.2025: 90.000,00 €.

2.2. Baimendutako gastua handitu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleitura duen organoak, dirulaguntza ematea ebatzi baino lehen. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko. Kopuru gehigarria eraginkorra izateko baldintza izango da dirulaguntzak ematea ebatzi aurretik kreditua erabilgarri deklaratzeko.

### **3. Eskaerak aurkezteko epea.**

Eskaerak aurkezteko epea deialdia GAO-n argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko da eta 2024ko irailaren 19an, eguerdiko 13:00etan bukatuko da.

### **4. Jarduerak hasteko epea.**

Diruz lagundutako jarduerak dirulaguntza eskaera aurkeztu ondoren hasiko dira gauzatzen.

### **5. Proiektuen exekuzio data.**

Enpresa onuradunek bukatuta izan beharko dituzte diruz lagundutako jarduerak eskaeran adierazitako hasiera datatik hasita hamabi hilabete naturaleko epean eta, edozein kasutan, 2025eko irailaren 30a baino lehen.

### **6. Proiektuak justifikatzeko data.**

Diruz lagundutako proiektua edo jarduera, proiektua bukatu eta hilabete naturalaren barruan zurituko da eta, edozein kasutan, 2025eko urriaren 30a baino lehen.

### **7. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.**

7.1. Eskaerarekin batera, eranskinean dagoen ereduari jarraituz, honako agiriak aurkeztu behar dira:

— Enpresa eskatzailearen datuak.

— Euskalitek egindako egunean dagoen Kudeaketa Aurreratuko Kontraste Txostena.

— Jarduera Plana, enpresak egindakoa Bertan, osotasunean deskribatuko dira kudeaketa aurreratuan pausoak emateko eragingo dituen jarduerak, betiere Kudeaketa Aurreratuko Hasierako Kontraste Txosteneko ondorioen ildotik.

— Dirulaguntza eskatzen den finkatze proiektuaren (2B) memoria tekniko-ekonomikoa, eskuragarri den ereduaren arabera, proiektuaren behar adina informazioarekin, hala nola, programaren helburuen egokitzapena; ekintza planaren kalitatea finkatze proiektuan ezarritako helburuak lortzeko proiektuan proposatu diren eginbeharren egokitzapena; espero diren emaitzak eta eragina; talde sustatzailearen eta kanpoko taldearen egokitasuna; kanpoko taldearen erreferentziak antzeko proiektuetan, lan esperientzia, kide kopurua eta taldearen trebakuntza; eta proiektuaren kudeaketaren eredia eta metodologia eta esleitutako baliabideen egokitzapena.

— Aurkeztutako proiektuaren aurrekontu zehaztua.



— 14. oinarrian ezarritako pertsonak edo enpresek 3. oinarrian ezarritako edozein proposamen egiteko eskaintzen kopia. Dokumentu honetan, diruz lagunduko den lanaren eduki desberdinak zehaztuko dira.

Aipatutako eskaintzaren zenbatekoa 15.000,00 € edo gehiago izango balitz, eskatutako hiru eskaintzen artean egindako aukeraketa egiaztatzen duen dokumentazioa, 14.5.d) oinarrian jasotakoari jarraituz.

— Lan egiten duten langile kopurua egiaztatzeko, enpresa onuradunaren LIZ (Langileen Izen Zerrenda) ereduaren kopia aurkeztuko da, eta agiri horiek eskaera aurkezten den unearen aurreko hilabetera arte eguneratuta egongo dira. Langile autonomoen kasuan, LIZ aurkeztu ordez, Autonomoen Araubideari dagozkion kotizazio agiriak aurkeztuko dira.

Gainera, kooperatiba elkarten kasuan, erantsi beharko da bazkide kooperatibisten kotizazio ziurtagiria, Gizarte Segurantzaren enpresa lankideak emandakoa.

— Erantzukizunpeko adierazpena, deialdi honen eranskin gisa agertzen den ereduaren arabera, eta eskaera telematikoa ere badagoena.

7.2. Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak plataforma korporatiboen, bitartekaritza-plataformen (NISAE, Euskadiko administrazioen segurtasunerako eta elkarreragintasunerako nodoa) edo sarbide publikoko plataformen bidez egiaztatuko du eskatzaileak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela. Baita ere Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren datuak, zein epigrafeetan alta egoeran dagoen ikusteko

Eskaeran berriaz adierazi ahal izango dute egiaztapen automatikoaren aurka daudela; kasu horretan organo administratiboek emandako ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.

## **8. Eskaerak erabakitze epea eta jakinarazpena.**

Dirulaguntza emateko ala ukatzeko ebazpena eta horren jakinarazpena egiteko gehieneko epea 6 hilabetekoa izango da, behar bezala betetako eskaerari sarrera ematen zaionetik aurrera kontatuta.

Gehieneko epea amaituta ez bada berriazko ebazpenik jakinarazi, eskaera ezetsi egin zaiola ulertuko da.

Dirulaguntza ematea edo ukatzea erabakitzen duen ebazpena enpresa eskatzaile bakoitzari jakinaraziko zaio. Nolanahi ere, Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko ditu emandako dirulaguntzak, Gipuzkoako dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak 17. Artikuluan xedatutakoaren arabera.

## **9. Borondatezko itzulketa.**

Entitate onuradunak borondatezko itzulketa egin nahi badu, idatzi bat bidali behar dio Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuko foru diputatuari 16.3 oinarrian zehazten den moduan. Horrela, Departamentuak dagokion ordainketa-gutuna egingo du eta entitate onuradunari emango dio dirulaguntzaren itzulketa egiteko aukera izan dezan.



## I. ERANSKINA

### **INNOBIDEAK-KUDEABIDE PROGRAMARI DAGOZKION DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK**

#### **1. oinarria. Xedea**

Oinarri hauen helburua da Kudeaketa Aurreratuko Euskal Ereduarekin lotuta dauden Kudeaketa hobetzeko proiektuetarako dirulaguntzak arautzea, baldin eta proiektu horiek laguntzen badute Gipuzkoako enpresen lehiakortasuna hobetzen, betiere industria arloko enpresak eta horien ekoizpen prozesuarekin zerikusia duten zerbitzu teknikoekin lotuta daudenak, informazioaren eta komunikazioaren gizartearen esparrukoak, 5 langile edo hortik gora eta 50 langile baino gutxiago dituzten eta Gipuzkoan Kudeaketa aurreratua sendotzeko proiektu bat (2B) garatu nahi duten enpresak badira.

#### **2. oinarria. Enpresa onuradunen baldintzak.**

2.1. Enpresa onuradunek baldintza hauek bete behar dituzte:

- a) Izaera juridiko propioa izatea.
- b) Ondorengo industria jarduerak burutzea: erauzketa, eraldaketa, ekoizpena, jarduera horien ekoizpen prozesuari lotutako zerbitzu teknikoak eta informazioaren eta komunikazioaren gizartearen alorrekoak. Jarduera hau oinarri hauen eranskin moduan Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren epigrafeen zerrendako epigrafeetako bati lotuta egon beharko da. Baldintza hori egiaztatzeko kontuan hartuko da enpresaren jarduera nagusiaren Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren altako epigrafea.
- c) Gipuzkoan kokatuta egotea.
- d) 5 edo hortik gora eta 50 langile baino gutxiago izatea (biak barne), urteko lansaio osoa kontuan hartuta.

Enpresako langiletzat hartuko dira enpresaren jarduerari atxikitako langile autonomoak, zeinak, bere izaeragatik, ezin baitute Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean alta emanda egon.

Seme-alabak edo mendetasuna duten pertsonak zaintzeagatik lansaioaren murrizketen kasuan, erakunde eskatzailearen beraren eskariz, murrizketa kontuan hartu gabe konputatu ahal izango dira lansaio horiek.

- e) Egunean izatea Euskalitek egindako Kudeaketa Aurreratuko Hasierako Kontraste Txostena, non gomendio gisa jasoko baita Kudeaketa Aurreratuko Finkatze Proiektu bat egitea identifikatu diren hobetu beharreko arloetako batean edo batzuetan.
  - f) Armen ekoizpen, merkaturatze eta finantzaketan ez aritzea, abenduaren 28ko 14/2007 Legeak, Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunarenak, xedatutakoaren arabera.
  - g) Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak 12. artikuluan ezarritako debekuen eraginpean ez egotea.
  - h) Enpresak konpromisoa hartzen du Gipuzkoako Foru Aldundiaren nahiz foru sektore publikoa osatzen duten gainerako entitateen laguntzei eta dirulaguntzei aplikatu beharreko jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua hasieratik bukaerara betetzeko; kode hori Diputatuen Kontseiluak onartu zuen 2018ko urriaren 2ko bileran eta helbide elektronikoko honetan eskura daiteke: <https://www.gipuzkoa.eus/eu/aldundia/zuzentasun-sistema>.
  - i) Eta, horrenbestez, ez du inolako interes gatazkarik ez beste lizitatzailerak batzuekiko edo proiektuan interesatutako beste alderdi batzuekiko antzeko inolako harremanik. Enpresak bere gain hartzen du, kontratua betetzeko epean zehar egoera hori sortzen bada, horren berri emateko botere adjudikatzailerari.
- f), g), h) eta i) paragrafoetan adierazitakoaren egiaztapena enpresa eskatzailearen deklarazio arduradun baten bidez egingo da, zeina Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentura zuzenduko baita.

a), b), c) eta d) paragrafoetako baldintzak, azkeneko hori gutxienez, eta g) paragrafokoa eskaera aurkezterakoan egiaztatu beharko dira, deialdian adierazitako dokumentazioaren bidez, eta proiektua bukatu arte bete beharko dira. d) paragrafoaren kasuan, gehieneko langile kopuruari dagokionez, nahikoa izango da eskaera aurkezterakoan egiaztatzea.

f), eta g) baldintzen kasuan, horiek eragin dituzten inguruabarrak irauten duten bitartean bete beharko dira, betiere martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak 12. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2.2. Ez dira enpresa onuraduntzat hartuko Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileak, sare horretako kide izateko egiaztatu direnak, eta Enpresa eta Berrikuntza Zentroak (EBZ).

Era berean, baztertuta gelditzen dira sozietate publikoak, entitate publiko enpresarialak, ondasun erkidegoak eta sozietate zibilak.

2.3. Enpresa batek Kudeabide programara aurkeztutako proiektu batean parte hartzen badu kontratatutako kanpoko enpresa aditu gisa, ezin izango du Kudeabideren onuradun gisa parte hartu (enpresa berak ezingo du programaren hornitzaile eta onuradun izan deialdi berean).



### **3. oinarria. Dirulaguntzaren xede diren jarduerak.**

3.1. Kudeaketa Aurreratuaren Kontraste Txostenari erantzuten dioten finkatze proiektuak (2B), Kudeaketa Aurreratuaren Ereduearen arabera enpresari aurre egiten lagunduko dioten metodologiak eta tresnak erabiltzea eta ezartzea helburu dutenak.

Aurkeztuko diren proiektuak Kontraste Txostenean zehaztutako hobekuntza arloetara bideratu behar dira, txostenean bertan adierazitako gomendioei erantzunez. Ez dira diruz lagunduko Kontraste Txostenean oinarri ez duten proiektuak.

Oinarri arautzaile hauen ondorioetarako, Kudeaketa Aurreratuaren Kontraste Txostena da Euskalitek egindako txosten bat non jasotzen baita enpresaren posizionamendua Kudeaketa Aurreratuaren arloan, erreferentzia gisa hartuta zehaztutako eredu berria. Kontraste Txosten horretan ere zehazten dira enpresak hobetu beharreko arloak eta ezartzen dira enpresak bete behar dituen jarraibideak Kudeabide programan jarraitzeko, proiektu pilotu bat (2A) nahiz finkatze proiektu bat (2B) eskatuz. Txostenak bi urteko indarraldia izango du, egiten denetik aurrera.

Proiektuak bideratu beharko dira, genero-ikuspegia kontuan hartuta, ondorengo eremuetakoren bat gutxienez hobetzera:

— Estrategia; beharrezkoa den informazio estrategikoa eskuratzeko eta partaidetzako hausnarketa prozesuak egiteko proiektuak izango dira, eta horien bidez estrategia bat ezarri ahal izango da, gero behar bezala zabaldu eta komunikatuko dena, eta estrategia horren zerbitzura kudeatuko dira baliabide ekonomiko finantzarioak, teknologia eta informazioa.

— Bezeroak; bezeroekiko harremanak eta Balio Katearen elementu guztien (produktuen eta zerbitzuen garapena, merkaturatzea, ekoizpena, banaketa eta mantenimendua) eraginkortasuna sustatuko duten proiektuak izango dira, eta enpresaren estrategian zeregin aipagarria bete dezaketen entitate hornitzaileen eta azpikontratisten laguntza izan dezakete.

— Pertsonak; hautapen prozesuak, ordainketa sistema, eta jakintzaren, eskumenen eta lidergo gaitasunaren garapena hobetuko duten proiektuak izango dira, enpresaren estrategiarekin bat eginda.

— Gizartea; enpresak bere ahalmenekin bat datozen gizarte zereginak betetzeko eta, aldi berean, ingurumen iraunkortasuna lortzeko neurriak sustatzeko proiektuak izango dira.

— Berrikuntza; atal honetan sartuko diren proiektuen xede izango dira, lehenengo, berrikuntzak egiteko helburuak eta estrategia zehaztea, bigarren, pertsonak arriskuak har ditzaten, ekintzaile izan daitezen eta berrikuntzak egin ditzaten lortzeko beharrezkoa den barruko testuingurua sortzea eta, hirugarren, ingurunearen ahalmen berritzailea aprobetxatzea, berrikuntzako ideiak eta proiektuak eraginkortasunez eta eragimenez kudeatuz.

— Emaitzak; bezeroen, pertsonen, gizartearen eta berrikuntzaren arloan lortutako emaitza estrategikoak neurtu, ebaluatu eta kontrolatzeko mekanismoak sortzeko aukera emango duten proiektuak izango dira.

Dirulaguntzaren xede diren proiektuak enpresa eskatzailean ezarri eta abian jartzeko modukoak izango dira, proiektuen onura enpresan bertan egongo da eta enpresaren jardueraren xedearekin bat etorriko dira. Hala, diruz laguntzekoak izango dira, soilik, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zentroetan zuzenean ezar daitezkeen jardueren kostuak.

3.2. Diruz lagundu daitezkeen proiektuetzat joko dira ondorengo balorazio irizpideen arabera 50 puntuko gutxieneko puntuazioa lortzen duten eta a), b) eta c) irizpideetan adierazitako gutxieneko puntuazioa gainditzen duten proiektuak bakarrik.

a) Programaren helburuetara egokitzea: 20 puntu. Gutxienez 10 puntu lortu behar dira.

b) Ekintza planaren kalitatea: 15 puntu. Gutxienez 10 puntu lortu behar dira.

c) Proiektuko eginbeharrak ezarritako proiektuaren helburuak lortzeko egokiak izatea: 35 puntu. Gutxienez 20 puntu lortu behar dira.

d) Espero diren emaitzak eta eragina: 10 puntu.

e) Talde sustatzailearen eta kanpoko taldearen egokitasuna (kanpoko taldearen erreferentziak antzeko proiektuetan, lan esperientzia, kide kopurua eta taldearen trebakuntza): 10 puntu.

f) Proiektuaren Kudeaketa eredu eta metodologia, eta esleitutako baliabideen egokitzapena: 10 puntu.

3.3. Nolanahi ere, proiektuetan ez da onartuko sexuaren araberako bereizkeriarik eta saiatu beharko dira sexuaren araberako zereginak eta genero estereotipoak ezabatzen.

3.4. Proiektuak dirulaguntza eskaera aurkeztu ondoren hasiko dira gauzatzen, urte naturalaren barruan, eta hamabi hilabeteko epean amaitu beharko dira, hasiera datatik aurrera kontatuta.



#### **4. oinarria. Eskaerak aurkezteko modua eta epea.**

4.1. Enpresa bakoitzak izaera orokorreko proiektu bati dagokion eskaera bakarra aurkeztu ahal izango du.

Enpresa interesatuaren ordezkari dela legezko edozein bidetatik kreditatzen duenak egingo du dirulaguntza eskaera.

4.2. Deialdi bakoitzaren informazioa eta eskaera inprimakiak eskuragarri egongo dira Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuaren web orrian.

4.3. Eskaera orria eta dokumentazioa ondorengo web orri honen bitartez aurkeztuko dira: <http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>.

Eskaera orria, eta hari erantsitako dokumentazio osagarria aurkezterako orduan kontuan hartuko da, irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretua, foru administrazioaren esparruan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen duena.

Era berean, aurkez daitezke Gipuzkoako Foru Aldundiko edozein erregistrotan eta urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearenak, 16.4 artikuluan zehaztutako lekuetan.

4.4. Eskaerak aurkezteko epea deialdian zehaztuko da.

4.5. Eskaera egin duten enpresak ez daude beharturik Gipuzkoako Foru Aldundiari aurrez eman diren dokumentuak aurkeztera. Ondorio horietarako, interesdunak eskaera orrian zehaztu beharko du noiz eta zer administrazio-organoren aurrean aurkeztu zituen edo nork eman zituen dokumentu horiek, 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 artikulua zehazten duenari jarraituz. Dokumentazioa lortzea ezinezkoa den kasuetan, organo eskumena duen organoak eskatu ahal izango dio eskaera egin duen erakundeari, edo aurkez dezala, edo, ezin badu, beste nolabait egiazta ditzala dokumentuan egiaztatzen beharkeko eskakizunak.

4.6. Eskaera orriak, edo harekin batera aurkeztutako agiriek, identifikazio daturik jasoko ez balute, akatsen bat izango balute edo daturen bat faltako balute, 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 68.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, hamar eguneko epea emango litzaioke eskatzaileari hutsegite horiek konpontzeko edo beharrezhoak diren agiriak aurkezteko, eta ohartaraziko litzaioke, horrela egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, aipatutako Legeak 21.1 artikuluan aurreikusitako eran ebazpena eman ondoren.

Nolanahi ere, Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak egoki irizitako argibideak eskatu ahal izango ditu proiektuak behar bezala ebaluatu eta ebazteko.

4.7. Enpresa eskatzaileak baliozkotzat joko ditu Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak posta elektronikoen bidez dirulaguntzaren eskaeran harremanetarako pertsona gisa identifikatutakoaren helbide elektronikora bidalitako komunikazio guztiak.

#### **5. oinarria. Finantzazioa.**

5.1. Emango diren dirulaguntzak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren kargura finantzatu dira. Deialdian zehaztuko da zein aurrekontu kredituren kargura finantzatu diren dirulaguntzak.

5.2. Oinarri arautzaile hauetako jarduerak Foru Aldundiaren beraren jardueretan, erakunde arteko jardueretan edo Europar Batasunekoetan sartzen badira, eta horren ondorioz Departamentuak edo Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzazio gehigarria jasotzen badu, finantzazio hori laguntza programa hau finantzatzen duten aurrekontu sailletara eramango da.

5.3. Dirulaguntzen zenbatekoa ezingo da izan diruz lagundutako jardueraren guztizko kostua gainditzen duen kostu osoa baino handiagoa, ezta beste sarrerak edo baliabideak batuta ere.

#### **6. oinarria. Dirulaguntzen portzentajea eta gehieneko zenbatekoa.**

6.1. Deialdi honetako laguntzak dirulaguntza itzulezinak izango dira.

Proiektuaren kostu hautagarrien % 60 diruz lagunduko da, eta gehienez ere 7.200 euro izango dira enpresa bakoitzeko.

6.2. Enpresa eskatzaileak aurkeztutako aurrekontua eta ondorengo aldaketak mugarria izango dira dirulaguntzaren zenbatekoa erabakitzeko.

#### **7. oinarria. Emateko prozedura.**

7.1. Elkarrekiko lehiarik gabe onartuko dira laguntzak, aurrekontu zuzkidura agortu arte.

7.2. Eskaerak ebazterakoan kontuan hartuko da eskaeren jasotze hurrenkera eta horren arabera banatuko dira funtsak, baldin eta deialdian ezarritako baldintza guztiak betetzen badituzte, deialdian xedatutako aurrekontua agortu arte. Eskaeraren jasotze data izango da deialdiaren baldintza guztiak betetzen dituztela eta espedientea osatuta dagoela egiaztatzen duten agiriak jasotzen direneko azken data.

7.3. Dirulaguntzak emateko prozedura ofizioz hasiko da, aurreko atalean aipatzen den deialdi publikoaren bidez, zeina Diputatuen Kontseiluan onartu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko baita.

#### **8. oinarria. Prozedura izapidetzeko eskumena duen organoa.**

8.1. Prozedura izapidetuko duen organoa Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuko Ekonomia Sustapeneko Zerbitzua izango da.



8.2. Ekonomia Sustapeneko Zerbitzuak aurkeztu diren eskaerak ebaluatuko ditu eta behin betiko ebazpen proposamena egingo du. Proposamen horrek ez du inolako eskubiderik sortuko bertan onuradun gisa azaltzen diren pertsonen edo enpresen alde.

8.3. Ekonomia Sustapeneko Zerbitzuak behin betiko ebazpen proposamena igorriko dio Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuko Ekonomia Sustapeneko Zuzendaritza Nagusiarri.

8.4. Prozedura izapidetuko duen organoak bidezko irizten dituen aholkularitza eta txosten teknikoak eskatu ahal izango ditu aurkeztutako eskaerak behar bezala baloratzeko.

## **9. oinarria. Ebazpena.**

9.1. Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuko Ekonomia Sustapeneko zuzendariari dagokio dirulaguntza ematea edo ukatzea erabakitzen duen ebazpena.

9.2. Dirulaguntza ematea edo ukatzea erabakitzen duen ebazpena enpresa eskatzaile bakoitzari jakinaraziko zaio. Nolanahi ere, Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko ditu emandako dirulaguntzak, Gipuzkoako dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak 17. artikuluan xedatutakoaren arabera.

9.3. Ebazpena eman eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, behar bezala beteta eta eskatutako dokumentazioa duen eskaerari sarrera ematen zaionetik aurrera kontatuta. Gehieneko epea amaituta ebazpena berariaz jakinarazi ez bada, interesatuak legitimatuta daude dirulaguntza eskaera isiltasun administratiboagatik ezetsita dagoela ulertzeko.

9.4. Dirulaguntzaren proposamena eskaerakoa baino txikiagoa denean, erakunde onuradunari eskatu ahal izango zaio berriro formula dezala eskaera, eman dakioken dirulaguntzara moldatzeko konpromisoak eta baldintzak.

## **10. oinarria. Enpresa onuradunen betebeharrak eta konpromisoak.**

10.1. Enpresa onuradunek dirulaguntzak onartzeak berekin dakar honako hauetan ezartzen diren betekizunen pean egotea: martxoaren 27ko 3/2007 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzkoa; hura garatzeko araudia, apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuaren bidez onartua, dirulaguntzen inguruan aplikagarri izan daitekeen gainerako araudia eta oinarri hauetatik ondorioztatzen dena.

10.2. Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko da diruz lagundutako proiektuaren ondorioz egiten diren jakinarazpenetan, argitalpenetan eta zabalkunde jardueretan, hala agin tzen baitu 2018ko ekainaren 26ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiak, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere organismo autonomoen jarduera esparruetan 2018-2022 aldirako onartzen duenak (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 149 zk. 2018ko abuztuaren 3koa).

10.3. Enpresa onuradunak genero ikuspegia sartu beharko du diruz lagundutako proiektua diseinatu eta garatzerakoan.

10.4. Hizkuntzaren erabilera ez sexista bermatuko da diruz lagundutako proiektuaren komunikazio eta argitalpen guztietan.

10.5. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak dirulaguntzaren xederako ematen duen finantzaketari beharrezko publikitate ematea. Horretarako, haren irudi instituzionala sartuko da, finantzaketa publikoari eta esku hartze publikoko programaren xedeari buruzko aipamenekin batera, karteletan, material inprimatuetan, baliabide elektronikoko edo ikus-entzunezkoetan eta abarretan, komunikabideetan egiten diren aipamenekin batera.

10.6. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak ezartzen dituen ebaluazio baldintza guztiak bete beharko dira; horien bitartez, jarduerak eta emaitzak eta inpaktuak neurtuko dira eraginkortasunetik eta eragimenetik.

10.7. Dirulaguntza eman zenetik bost urteko epean, Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpo helbide soziala, fiskala edo produkzio zentroetako zati nabarmen bat beste toki batera eramanez gero, dirulaguntza itzuli beharko da eta 16. oinarrian ezarritakoa aplikatuko da.

## **11. oinarria. Dirulaguntzen bateragarritasuna edo bateraezintasuna.**

11.1. Oinarri hauek arautzen dituzten dirulaguntzak ez dira bateragarriak izango beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatu, nazional, europar edo nazioartekok xede berarekin emandako beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideekin.

11.2. Oinarri hauen arabera diruz lagundutako proiektua garatzeko dirulaguntza bat eskatzen edo lortzen duen enpresa onuradunak horren berri eman beharko dio Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuari.

## **12. oinarria. Laguntzak metatzea.**

Oinarri arautzaile hauetan dauden laguntzek abenduaren 18ko Europar Batzordearen 1407/2013 EB Erregelamenduan (ikus 2013ko abenduaren 24ko Europar Batasuneko Egunkari Ofiziala), minimis laguntzak Tratutako 107 eta 108. artikuluen aplikazioari buruzkoan, xedatutakoa beteko dute. Horrenbestez, araudi hori ez betetzeak erantzukizun penala, zibila eta administratiboa ekar lezake enpresa urratzailearentzat. Europar Batasunak ezarritakoaren arabera, emandako minimis laguntzek guztira ez dute 200.000 euro baino gehiago izan behar hiru zergalditan.





### **13. oinarria. Dirulaguntzak ordaintzea.**

13.1. Ordainketa dirulaguntza jaso duen jarduerak gauzatzeko justifikazioa aurkeztu eta gero egingo da.

Hala ere, laguntza programaren xedea beteta, eta kontuan hartuta proiektuaren izaera esperimentalak zaildu egiten duela finantzazioa lortzea, funtsak behar direla proiektuaren hasieratik, finantza-baliabide urriak dituzten enpresa txikiei bideratuta dagoela, eta aurreko esperientzietan proiektuak gauzatu diren modua, posible izango da ordainketa aurreratutako egitea berme beharrik gabe. Laguntzaren aurrerakinak ordaindu ahal izango dira diruz lagundutako jarduerak aurrera eraman ahal izateko, betiere aurrekontu baliabiderik egonez gero eta dirulaguntza osoaren % 60 gainditu gabe, pertsona onuradunak alde aurretik eskaturik eta beharrezana justifikaturik.

Falta den kopurua proiektua amaitutakoan ordainduko da, 14. oinarrian aurreikusitako justifikazioa aurkeztu eta gero.

13.2. Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, 32. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, ordainketak ezin izango dira egin harik eta enpresa onuradunak egiaztatu arte zerga betebeharreran eta gizarte segurantzakoetan edota enpresa laguntzaileetan egunean daudela.

### **14. oinarria. Diruz lagundu daitezkeen kostuak eta dirulaguntza zuritzea.**

14.1. Kostu hautagarritzat joko dira kudeaketa hobetzeko aurkeztutako proiektuaren eremuan hainbat jardura egiteko kanpoko enpresak kontratatutako kostuak.

Diruz lagundu daitezkeen kostuak erabakitzerakoan kontuan hartuko dira ondorengo irizpideak:

— Diruz lagundu daitezkeen kostuak zerikusi zuzena izango dute kudeaketa aurreratutako finkatze proiektua zehazteko eta garatzeko lanekin (2B proiektuak), baldin eta dirulaguntza programan zehaztutako gairen bat edo batzuk eta Euskalitek prestatutako Kudeaketa Aurreratuaren Kontraste Txostenean adierazitako hobekuntza arloak lantzen badituzte.

— Fakturan sartuta edo sartu gabe egon daitezkeen deskontuek eta antzekoek kostuaren balioa gutxitzea eragingo dute.

— Kanpoko langile kostuen kasuan, hautagarriak izango dira, gehienez ere, orduko 69,29 euro. Edozein kasutan, kostu hautagarriak ezingo dira merkatuko balioaren gainetik egon eta arrazoizkoak izan behar dira; gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak mugatu egin ditzake kostu horiek.

— Fakturako balio erantsiaren gaineko zerga ez da, inola ere, diruz lagundu daitezkeen kostutzat joko.

— Halaber, ez dira diruz lagundu daitezkeen kostutzat joko honako hauek: kanpoko enpresako langileen joan-etorriak, materialen elaborazioa, aretoen alokairua, dietak et antzekoak.

— Fakturak, gehienez ere, proiektua gauzatzen amaitu eta hilabeteko epearen barruan egin beharko dira. Ez dira onartuko proiektua hasi aurretik egindako fakturak edo onartu gabeko kostuei dagozkienak.

Fakturen ordainketa agiriak fakturak egin ondorengoak izango dira. Ez da onartuko proiektuaren hasiera data aurreko ordainketa agiririk.

14.2. Kanpoko enpresek ondorengo baldintzak bete behar dituzte:

a. Izaera juridiko propioa duten eta administrazio publikoen menpeko edo loturapeko enpresak ez izatea.

b. Dirulaguntza eskatzen duen enpresarekin, ez zuzenean ez zeharka, lotura sozietario, pertsonal edo interesekorik ez izatea. Eta,

— Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak 12. artikuluan ezarritako debekuen eraginpean ez egotea.

— Konpromisoa hartzen du Gipuzkoako Foru Aldundiaren nahiz foru sektore publikoa osatzen duten gainerako entitateen laguntzei eta dirulaguntzei aplikatu beharreko jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua hasieratik bukaerara betetzeko; kode hori Diputatuen Kontseiluak onartu zuen 2018ko urriaren 2ko bileran eta helbide elektronikoa honetan eskura daiteke: <https://www.gipuzkoa.eus/eu/aldundia/zuzentasun-sistema>.

c. Zientziaren, Teknologiararen eta Berrikuntzaren Euskal Sareko kide ez izatea.

14.3. Kasu guztietan enpresa onuradunak frogatu beharko du diruz lagundutako jardura gauzatu izana, baita jardura horrek sortutako kostuak ere.

14.4. Dirulaguntzaren xede den proiektua edo jardura proiektua amaitu eta hilabete naturaleko epean zuritu beharko da.

14.5. Aurreko paragrafoan zehaztutako epearen barruan, enpresa onuradunak kontu zurigarri bat aurkeztu beharko du ondorengo agiri hauek jasoz:

— Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen jardura memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuaren web orrian eskuragarri dagoen ereduaren arabera. Proiektua gauzatu bitartean sortutako agiri eta txosten guztiak erantsi beharko dira, dirulaguntza eskaeran adierazi bezala.

Era berean, eta ebaluazio-prozesu integral bat ziurtatu ahal izateko, departamentuak, ahal den neurrian, Ogasun eta Finantza Departamentuarekin kontrastatutako ditu, entitate onuradunek baimena eman ondoren, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 92.1.l) artikuluan xedatutakoaren arabera, laguntza-eskaeraren aurreko hiru ekitaldi fiskaletan eta ondorengo bost ekitaldietan, eragiketa-bolumenari eta negozio-zifrarri, esportazio-bolumenari, % 5etik gorako akziodunen nortasuna eta zerga helbideari, 3.000 eurotik gorako entitate hornitzaileei, beste sozietate batzuetako partaidetzari (nortasuna, zerga helbidea, portzentaia), oinarritzko jardueraren



epigrafe fiskalari, batez besteko plantillari, plantillaren soldata-kostuari; eta, sozietateen gaineko zergaren kuota efektiboari buruzko datuak.

— Memoria ekonomikoa, jardueren kostua frogatuko duena. Honako edukiak izango ditu:

a) Zerrenda sailkatu batean jasota, jardueraren gastuak, bakoitzaren hartzekoduna eta agiria, zenbatekoa, jaulkipen data eta ordainketa data adierazita. Dirulaguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, horrekiko desbiderapenak adieraziko dira.

b) Fakturak, edo merkataritzako trafiko juridikoan haien pareko froga balioa edo eraginkortasun administratiboa duten agiriak, aurreko paragrafoan aipatutako zerrendan adierazitakoak, eta, behar izanez gero, ordainketaren egiaztagiria.

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko jaso diren beste diru sarreren edo laguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

d) Enpresa onuradunak, ekipo ondasunen horniduran edo aholkularitza edo laguntza teknikoaren arloko enpresen zerbitzu-prestazioan, diruz laguntzeko moduko 15.000 euro edo gehiagoko kostuak egin baditu, eskatutako hiru eskaintzen artean egindako aukeraketa egiaztatzen duen dokumentazioa, hain zuzen ere martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 30.3 artikulua diogenaren bidetik, non eta laguntza horren ezaugarri bereziak direla-eta behar adinako enpresa edo profesionalik ez dagoen zerbitzu horiek emateko, edo gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin ez den.

e) Enpresa onuradunaren LIZ (Langileen Izen Zerrenda) ereduaren kopia Langile autonomoen kasuan, RNT ereduaren orde, Langile Autonomoen Erregimenari dagokion kotizazio buletinak. Gainera, kooperatiba elkarten kasuan, bazkide kooperatibisten kotizazio ziurtagiria erantsiko da, Gizarte Segurantzako dagokion entitate laguntzaileak bidalia.

14.6. Behar izanez gero, diruz lagundutako proiektuari buruzko dokumentazio grafikoa, argazki bidezkoa edo ikus-entzunezkoa.

14.7. Kostuak egiaztatzeko jatorrizko agirien kopia elektronikoa, informatikoa edo telematikoa aurkeztuko da, baldin eta agiri horien egiazkotasuna, osotasuna eta zaintza bermatzen badira.

Dena dela, enpresa eskatzaileari beharrezkotzat jotzen dituen agiri edota informazio osagarriak eskatu ahal izango zaizkio, aurkeztutako eskabidea ondo ulertu eta ebaluatzeko eta beraren jarraipena egin ahal izateko; agiriak eskatzen diren unean zehaztutako epean eman beharko dira. Era berean, bisitak egitea eskatu ahaliko zaio erakunde eskatzaileari, proiektua egiten ari den bitartean eta proiektua amaitu ondoren, behar bezalako jarraipena egin ahal izateko.

14.8. Dirulaguntza justifikatzeko ezarritako epea amaitu eta ez badira oinarri hauetako 5. atalean aipatutako agiriak aurkeztu, Ekonomia Sustapeneko Zerbitzuak 10 eguneko epea emango dio enpresa onuradunari agiri horiek aurkezteko. Bigarren epe horren barruan justifikazioa aurkezten ez bada, 16. Oinarrian aurreikusitako ondorioak eragingo ditu.

14.9. Onuradunak, laguntza ematea bultzatu zuen jarduera burutu izanaren eta jasotako fondoak aplikatu izanaren egiaztagiria 4 urtez gorde beharko ditu nahitaez. Epe hori kontatzen hasiko da enpresa onuradunak aipatu ziurtagiriak aurkezteko ezarritako denbora amaitzen denetik aurrera.

14.10. Oinarri honetako 5. puntuan adierazitako agiriak aurkeztutakoan, Ekonomia Sustapeneko Zerbitzuak espedientea egiaztatuko du.

Era berean, egiaztatuko du eskatzaileak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela. Baita ere Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren datuak, zein epigrafeetan alta egoeran dagoen ikusteko. Horretarako, zuzenean eskatuko ditu datu horiek dagozkion organismo igorleetatik; hori posible izango ez balitz, eskatzaileari eskatu ahal izango zaio dagokion dokumentazioa aurkeztea.

Egiaztapen horretatik ondorioztatzen bada diruz lagundu daitekeen kostua emandako dirulaguntza baino txikiagoa dela, doitu egingo da dirulaguntza. Dirulaguntza justifikatzeko ezarritako baldintzak edo dirulaguntzaren xede ziren helburuak, osorik nahiz zati batean, ez badira bete, horren berri emango zaio enpresa eskatzaileari egiaztapenaren emaitzekin batera, eta aldi berean hasiera emango zaio dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdutzat emateko prozedurari, edota dirulaguntza osorik nahiz zati batean itzultzeko prozedurari (16. Oinarrian aurreikusten da).

## **15. oinarria. Ebazpena aldatzea.**

15.1. Enpresa onuradunak Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuko Ekonomia Sustapeneko zuzendariari eskatu ahal izango diote, diruz lagundutako jarduera zuzentzeko epea amaitu aurretik, aldatu dezala dirulaguntza emateko ebazpena, baldin eta finkatutako epeak luzatzea, emandako dirulaguntza murriztea, diruz lagundutako aurrekontu atalak aldatzea edo jardueran bildutako ekintzak aldatzea badakar. Aldaketa prozedurari ezusteko kausen ondorio direnean edo jardueraren helburua lortzeko beharrezkoak direnean baimenduko dira, betiere dirulaguntzaren xedea aldatzen ez bada eta hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez badira.

15.2. Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuko Ekonomia Sustapeneko zuzendariak ofizios alda dezake dirulaguntza emateko ebazpena, betiere enpresa interesatuari entzunaldia eskainita eta funtsak ezarri aurretik, baldin eta dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzen aldaketak galarazten edo zailtzen badu erdietsi nahi den interes publikoa lortzea eta enpresa onuradunari ez bazaio kalte ekonomikorik eragiten.

15.3. Enpresa onuradunak egiaztapen-agirian jakinarazten badu aldatu egin direla dirulaguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzak eta, aldaketa horiek direla eta, lehen adierazi eran ebazpena aldatzea zilegi zatekeela, baina aldaketa onartu aurreko baimen administratiboaren tramitea ez zela egin bere garaian, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta





Landa Ingurunekeo Departamentuak onartu ahal izango du aurkeztu dioten egiaztapen-agiria, baldin eta erabaki horrek hirugarren batzuen eskubideak urratzen ez baditu, eta alde batera utzi gabe enpresa onuradunari jar dakiokkeen isuna, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzak arautzen dituenak, dioenari jarraikiz.

#### **16. oinarria. Ez-betetzeak eta itzulketak.**

16.1. Enpresa onuradunak ez baditu betetzen oinarri hauetan, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauan, berau garatzen duen erregelamenduan (apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuaren bidez onartutakoa) eta gainerako araudi aplikagarrietan ezarritako baldintzak eta betebeharrak, dirulaguntza hartzeko eskubidea osorik edo zati batean galdu duela deklaratu da, eta hartutako dirua osorik edo zati batean itzuli beharko du, dagozkion berandutza interesekin batera, aipatutako Foru Arauak 35. artikuluan xedatutakoaren arabera eta 49. artikuluan eta ondorengoetan xedatutakoari jarraituz hortik erator daitezkeen erantzukizunen arabera.

16.2. Bete gabe utzi dena mailakatzeko, proportzionaltasunaren irizpideak erabiliko dira, eta irizpide horiek Ekonomia Sustapeneko Zerbitzuak balioetsiko ditu, egindako lanen arabera onuradunak proiektua zer neurritan burutu duen eta zenbateko dirulaguntza jaso duen kontuan hartuta.

16.3. Borondatezko itzulketatzat jotzen da enpresa onuradunak dirulaguntza ematen duen organoak eskatu gabe egiten duena.

Itzultzeko prozedura hasteko, idatzi bat bidali behar dio Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurunekeo eta Lurralde Orekeo foru diputatuari, eta bertan, datu hauek sartu behar ditu, nolahi ere:

- Entitatearen izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia.
- Ordezkararen izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.
- Borondatezko itzul keta egiteko arrazoiaren azalpena.
- Tokia eta data.
- Sinadura.

Eskaera hori jaso ondoren, Ekonomia Sustapeneko zerbitzuak ordainketa gutuna bidaliko dio, itzultzeko zenbatekoa eta dagozkion berandutza interesak adieraziz.

#### **17. oinarria. Araubide juridikoa.**

Oinarri hauetan aurreikusitako dirulaguntzak arautzeko, bertan xedatutakoaz gain, kontuan hartuko dira martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoan, apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuak onartutako araudian eta dirulaguntzen alorreko gainerako araudi aplikagarrietan ezarritakoa.

#### **18. oinarria. Europar Batasuna.**

18.1. Dirulaguntzaren xede diren jarduerak Europar Batasunak aurreikusitako helburu eta ekintzekin bat datozen heinean, finantzaketa komunitarioa lortzeko izapidetuko dira.

18.2. Europar Batasunarekin batera finantzatzen diren dirulaguntzak komunitateko araudiak eta garapen eta transposizio arauak arautuko dituzte, kasuan kasu.

18.3. Europar Batasunaren kofinantzaketa lortuz gero, dirulaguntzaren xedeari buruzko aipamen publiko orotan jasota geratuko da EGEFen (Eskualde Garapenerako Europar Funtsa) kofinantzaketa komunitarioa (% 50), «Europa egiteko modu bat» goiburuz.

18.4. Diruz lagundutako entitateak bermatu egin behar du 2014-2020 EGEF Programa Operatiboari dagozkion kostuen eta kontu-ikuskaritzaren egiaztagiria guztiak Batzordearen eta Kontuen Auzitegiaren eskura egongo direla hiru urteko epean, programa ixten denetik hasita, edo, hala dagokionean, partzialki ixten den urtetik aurrera.



## ERANSKINA JARDUERA EKONOMIKOEN ERLAZIOA

Laguntza programa honen arabera hautagarritzat jotzen diren Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren epigrafeen zerrenda:

- **1.SAILA. ENERGIA ETA URA:** epigrafe guztiak (130, 141 eta 142 epigrafeak ezik)
- **2.SAILA. MATERIALE EZ ENERGETIKO ETA BEREN DERIBATUAK ERAUZTEA ETA TRANSFORMATZEA. INDUSTRIA KIMIKOA:** (epigrafe guztiak)
- **3.SAILA. METAL TRANSFORMAGINTZA. PREZISIO MEKANIKA:** (epigrafe guztiak) **(1)**
- **4.SAILA. BESTE INDUSTRI MANUFAKTURATZAILE BATZUK:** (epigrafe guztiak) **(2)**
- **5.SAILA. ERAIKINTZA:** (5041, 5043, 5044, 5046 epigrafeak bakarrik) **(3)**
- **6.SAILA. MERKATARITZA, JATETXEAK ETA OSTALARITZA, KONPONKETAK:** (621, 622, 623 eta 692 epigrafeak bakarrik)
- **7.SAILA. GARRAIOAK ETA KOMUNIKABIDEAK:** (76 multzoa bakarrik) **(4)**
- **8.SAILA. ERAKUNDE FINANTZARIAK, ASEGURUAK, ENPRESEI PRESTATU ZERBITZUAK ETA ALOKAIRUAK:** (8431, 8439, 845, 847 epigrafeak bakarrik) **(5)**
- **9.SAILA. BESTE ZERBITZU BATZUK:** (9611, 9612 epigrafeak bakarrik)

**(1) 3.Sailean:** Ibilgailuen salmenta eta/edo industriakoa ez den konponketa izan ezik (319 epigrafean).

**(2) 4. Sailean:** 4741-4743; 475-4752-4753-4754; 476-4761-4762-4769 epigrafeen kasuan, argitalpen ekoizpena justifikatu beharko da; eta 413 epigrafearen kasuan, industria jarduera hazkuntzatik eta/edo ugalketatik harago doala justifikatu beharko da.

**(3) 5. Sailean:** Baldin eta jarduera industriako baimenaren mende badago.

**(4) 7. Sailean:** Baldin eta informazioaren teknologietako zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak badira eta produktuaren prestakuntzarekin eta/edo merkaturatzearekin eskusiboki bat ez datozen zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak badira.

**(5) 8. Sailean:**

- Industria enpresen produktuari eta/edo produkzio prozesuari lotutako zerbitzu teknikoak badira. (8431-8439-847).
- Baldin eta informazioaren teknologietako zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak badira eta produktuaren prestakuntzarekin eta/edo merkaturatzearekin eskusiboki bat ez datozen zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak badira. (845)